



HERRITARRAREN ZIURTAGIRIRAKO BERARIAZKO DOKUMENTAZIOA

Erreferentzia: IZENPE-Doc. Ciudadano
Bertsio zkia.: 4.1
Data: 2007ko urriaren 16a

© IZENPEIZENPE 2007
Dokumentu hau IZENPErena da, kopiarik egitekotan, osorik kopiatu daiteke soilik.

■ Beato Tomás de Zumárraga
71 - 1ª Planta
01008
Vitoria - Gasteiz

www.izenpe.com
info@izenpe.com
Tel.: 945 017 490



1. Sarrera

Dokumentu honen izena *Herritarraren ziurtagirirako berariazko dokumentazioa* da, eta Ziurtapen eta Zerbitzu Enpresa-Empresa de Certificación y Servicios, Izenpe SA enpresak idatzi du. (aurrerantzean, IZENPE).

Dokumentu honen helburua da IZENPEren *Ziurtagiri Praktiken Deklarazioan* herritarraren ziurtagirien inguruan modu orokorrean definitutakoa zehaztu eta osatzea.

Dokumentazio honek berariaz arautzen ditu *Ziurtagiri Praktiken Deklarazioa* dokumentuak *Herritarraren Ziurtagirirako Berariazko Dokumentazioa* deritzon dokumentu honi bidalitakoa.

1.1 Aurkezpena

IZENPEk jaulkitzen duen herritarraren ziurtagiria Ziurtagiri Digitaleko Zerbitzuen barnean sartzen da. Aipatu zerbitzuak jaulkitzen dituen ziurtagirien bitartez, harreman telematikoak eduki ahalko dira ziurtagiri hori erabiltzea onartu duten Entitate Erabiltzaileekin edota Erakunde Publiko eta Pribatuekin, erakunde horiek IZENPErekin dagokion hitzarmena edo kontratua sinatuz edo beste edozein modura hala onartu dutelako. Ziurtagirien erabilpena onartzeko erakunde pribatuek sinatutako hitzarmen edo kontratuetan edota helburu berbererako erabilitako bitartekoetan, ziurtagiriaren erabilpen-esparrua definituko da, betiere zerbitzu publikoei lotuta.

Ziurtagiriak dituen identitatea eta edonolako informazioa erregistro-entitate batek egiaztatu behar ditu derrigor. Ziurtagirien erregistro-entitate gisa egin beharreko jarduketak IZENPEk burutu ditzake, edota IZENPErekin dagokion hitzarmena sinatzen duen entitate erabiltzaileak.

1.1.1 Ziurtagiriaren deskribapena

Herritarraren ziurtagiria sinadura elektronikoko ziurtagiri bat da, eta onartutako ziurtagiriaren lege-onarpena du, sinadura elektronikoa buruzko abenduaren 19ko 59/2003 Legeko 8, 11, 12, 13, 18 eta 20. artikuluetan ezarritakoaren arabera.

Aipatu ziurtagiria txartel kriptografikoan jaulkitzen da.

1.2 Identifikazioa

Herritarraren ziurtagiria identifikatzea helburu, IZENPEk honako objektu-identifikatzailea (OID) egokitu dio.



ZIURTAGIRIA	OID
Herritarraren Ziurtagiria	1.3.6.1.4.1.14777.2.1
Herritarraren Ziurtagiria DPC 2.0	1.3.6.1.4.1.14777.2.6

Ziurtagiri onartua denez, Telekomunikazioko Arauen Europako Institutuak onartutako ziurtagiri-profilei buruzko TS 101 862 arauan definitutako OID objektu-identifikatzaile hau gehitzen zaio: 0.4.0.1862.1.1.

1.3 Komunitatea eta aplikagarritasuna

1.3.1 Ziurtagirien erabiltzaileak

Herritarraren ziurtagiriaren erabiltzaile diren azken entitateak ziurtagiri digitalak jaulki, kudeatu eta erabiltzeko zerbitzuak jasotzen dituzten pertsona eta erakundeak dira.

Ondorengoak dira Entitate Erabiltzaileen ziurtagiri-sistemaren xede diren erakundeak:

1. Ziurtagirien eskatzaileak
2. Ziurtagiriaren sinatzaileak
3. Ziurtagirien harpidedunak
4. Gakoen edukitzaileak
5. Ziurtagirien fidagarritasuna duten hirugarrengoak

1.3.1.1 Ziurtagirien eskatzaileak

Herritarraren ziurtagiria pertsona batek eskatu behar du, norbere izenean.

Honako hauek izan daitezke eskatzaile:

1. Ziurtagiriaren harpidedun izango den pertsona
2. Harpidedun izango denak baimendutako pertsona
3. Erregistro-entitateak baimendutako pertsona
4. Ziurtagiri Zerbitzuen Egileak baimendutako pertsona



1.3.1.2. Sinatzailea

Sinatzailea ziurtagirian identifikatutako pertsona fisikoa da.

1.3.1.3. Ziurtagirien harpidedunak

Harpidedunak ziurtagirian identifikatutako pertsona fisikoak dira.

1.3.1.4 Gakoen edukitzaileak

Gakoen edukitzaileak sinadura digitaleko gakoen zaintza eta ardura duten pertsona fisikoak dira.

Gakoen edukitzailea sinatzailea izango da.

1.3.2 Aplikagarritasuna

1.3.2.1 Ziurtagirien erabilpen-esparrua

Herritarraren ziurtagiriak erabili egingo dituzte harpidedunek erabilpen hori onartu dituzten Entitate Erabiltzaileekin eta Institutio Publiko eta Pribatuekin.

Ziurtagirien erabilpena onartzeko erakunde pribatuek sinatutako hitzarmen edo kontratuetan, edota helburu berbererako erabilitako bitartekoetan, ziurtagiriaren erabilpen-esparrua definituko da, betiere zerbitzu publikoei lotuta.



2. Identifikazioa eta kautotzea

2.1 Hasierako erregistroa

2.1.1 Izen motak

Subject Name eremutik desberdindutako izenak CN Common Name osagaia du.

2.1.1.1 Subject (2003ko abenduaren 19ko 59/2003 Legeko e) letraren 11.2. artikuluko baldintza)

Herritarraren ziurtagiriko subject eremutik desberdindutako izenak ziurtagiriaren profilari dagokion atalean biltzen dira.

2.1.2 Izenen esanahia

Ezin dira goitizenak erabili.

Harpideduna pertsona fisikoa den herritarraren ziurtagirietan, harpidedunaren izena osatuko dute, izenak, abizenak eta NAN, pasaporte edo AIZ zenbakiak.

2.1.3 Izenen gaineko auziak konpontzea

Harpideduna pertsona fisikoa den herritarraren ziurtagirietan, benetako izenez identifikatzen diren harpidedunekin egon daitezkeen arazoak konpontzeko, ziurtagirian azaltzen den izenarekin batera, harpidedunak emandako NAN, pasaporte edota AIZ zenbakia agertuko da, aurreko atalean ezarritakoari jarraiki.

2.1.4 Pertsona fisiko baten identitatea kautotzea

2.1.4.1 Identitadedun subjektuak

IZENPEk identifikatu egingo du herritarraren ziurtagiriaren eskatzailea.

2.1.4.2 Beharrezko identifikazio-elementuak

Eskatzailearen identitatea egiaztatzeko, honako dokumentazioa eskatuko da:



- a) NANA edo pasaporte, Espainiako mugen barneko herritarra baldin bada.
- b) Atzerritarra baldin bada:
 - I. Europar Batasuneko edota Europako Esparru Ekonomikoko kidea baldin bada, AIZ eta nortasun-agiria eskatuko dira, eskatzailearen identitatea egiaztatzeko.
 - II. Erkidego kanpoko herritarrei bizileku-txartela eska diezaiekete.

2.1.4.3 Identifikazio-elementuak egiaztatzea

Erregistro-entitateak aipatutako dokumentazioa egiaztatuko du, eta egiaztapen hori burutu duela jasota geratuko da idatzi baten bidez.

2.1.4.4 Bertaratzearen beharra

Eskatzailea identifikatu eta egiaztatzeko, eskatzaileak berak erregistro-entitatara joan beharko du, eta jasota geratuko da.

Bertaratzea ez da beharrezkoa izango, baldin eta ziurtagiria jaulkitzeko eskaera-sinadura:

- notario aurrean legeztatua izan bada.
- edo sinadura Elektronikoaren Legeko 13.4 artikuluan aipatzen diren kasuetan, baldin eta ziurtagiriaren jaulkitze-prozeduran eskatzailea bertaratzea beharrezkoa balitz, eta ez eskatzailea identifikatzeko, baizik eta, adibidez, ziurtagiria modu seguruan ematen dela bermatzeko.

2.2 Ezeztatze, eteteko edo berraktibatze eskaera kautotzea

2.2.1 Ezeztatze-eskaerak

Ziurtagiria ezeztatzea eskatzen duenak erregistro-entitatara bertaratu eta honako hau burutu behar du:

- bere burua identifikatu, pertsona fisiko baten identitatea egiaztatzeko eskatzen diren dokumentuak aurkeztuz (ikus 3.1.1 atala)
- eta ezeztatze-eskaera arrazoitu, beharrezkoa balitz, ziurtagiria baliogabe gelditu dela egiaztatzen duen dokumentazioa erakutsiz.

IZENPEko eta erregistro-entitateko administrariak baimena dute azken erakundeko harpidedunaren ziurtagiria ezeztatzeko.



Ezeztatze / etete funtzioak burutu aurretik administrarien identitatea egiaztatzen da sarbide-kontrolaren bitartez, SSL eta bezeroaren egiaztatzea erabiliz.

2.2.2 Ezeztatze-eskaera

Eskatzaileak telefonoz eska dezake ziurtagiria etetea (tel.: 902 542 542). Horretarako, bere burua identifikatu behar du, telefono bidez identifikatzeko pasahitza emanaz edo, bestela, IZENPEk eskatutako datuak emanaz, horrela eskatzailea behar bezala identifikatzeko.

2.2.3 Ziurtagiria berraktibatze eskatzea

Ziurtagiria berraktibatze eskatu ahal izateko, eskatzaileak ziurtagiriaren harpideduna izan beharko du.

Erregistro-entitate batera joan eta bere burua identifikatu beharko du, pertsona fisiko baten identitatea egiaztatze eskatzen diren dokumentuak aurkeztuz (ikus 3.1.1 atala).



3. Eskakizun operatiboak

3.1 Ziurtagiria eskatzea

Eskatzaileak ziurtagiriaren [eskabide-orria](#) bete beharko du, eta IZENPEk tramitatu dezan aurkeztu, honako bi bide hauen bidez:

- Bide telematikoa: <http://www.izenpe.com> web orrian eskabide-orriak daude, eta telematikoki bete eta bidal daitezke erregistro-entitatera, aurre-erregistro gisa bil dezan.

(*). Aurre-erregistroa burutu eta hilabete batera, eskatzaileak erregistro-entitatearen bulegoetako batera bertaratu eta behin betiko eskaera burutuko ez balu, aurre-erregistroko datuak ezabatuko dira.
- Edota bertaratuta: Eskatzailea <http://www.izenpe.com> web orrian zerrendaturik azaltzen diren edozein erregistro-entitatera bertaratu daiteke, eta bertan ziurtagiriaren eskaera burutu.

3.1.1 Eskatzailearen identitatea kautotzea

Beharrezko dokumentazioa

Eskatzaileak, ziurtagiriaren harpidedun izango denak, erregistro-entitatera joan beharko du, eta ondorengo dokumentazioaren jatorrizkoak edo benetako kopia aurkeztu:

- a) NANA edo pasaporte, Espainiako mugen barneko herritarra baldin bada.
- b) Atzerritarra baldin bada:
 - I. Europar Batasuneko edota Europako Esparru Ekonomikoko kidea baldin bada, AIZ eta indarrean den nortasun-agiria eskatuko dira, eskatzailearen identitatea egiaztatzeko.
 - II. Erkidego kanpoko herritarrei bizileku-txartela eska diezaiekete.

Ziurtagiria eskatzeko baldintza izango da, ziurtagiriaren harpidedun izango denak 16 urte baino gehiago izatea.

Ez da zertan erregistro-entitatera bertaratu beharrik izango, honako kasu hauetan:



- Ziurtagiria jaulkitzeko eskaeran azaltzen den [eskatzailearen sinadura notario aurrean legezatu bada](#).
- Sinadura Elektronikoaren Legeko 13.4 artikuluan aipatzen diren kasuetan, baldin eta ziurtagiriaren jaulkitze-prozeduran eskatzailea bertaratzea beharrezkoa balitz, eta ez eskatzailea identifikatzeko, baizik eta, adibidez, ziurtagiria modu seguruan ematen dela bermatzeko.

Erregistro-entitateak eskatzailearen identitatea egiaztatu duenaren akta idatziko du.

3.2 Ziurtagiria jaulkitzea

Erregistro-entitatean eskatzailearen identitatea egiaztatu ostean, entitateak ziurtagiria jaulkitzeko eskaera sinatu beharko du eta, horrela, [harpidedunaren kontratua](#) onartuko da.

3.3 Ziurtagiria ematea

Erregistro-entitateak emango dio eskatzaileari ziurtagiria, eta eskatzaileak ziurtagiria jasotzeko honako modu hauen artean aukeratu ahal izango du:

1. Ziurtagiria jaulkitzeko unean bertan ematea, PINa eta PINa desblokeatzeko kodea (PUKa) eta telefono bidez identifikatzeko pasahitza nahiz ziurtagiria [erabiltzeko baldintzak](#) zein diren adierazten duen orria. Une horretan, eskatzaileak [entrega- eta onarpen-orria](#) sinatu beharko du.
2. Ziurtagiria ematerakoan bi une bereiztea:

- a) Ziurtagiria jaulkitzeko eskaeran zehaztutako posta-helbidean entregatzea zuzenean eskatzaileari.

Eskatzaileak sinatuta itzuli beharko du entrega- eta onarpen-orria IZENPERa, gehienez ere hilabeteko epean. Hala ez bada, ziurtagiria ezeztatu egingo da.

- b) Ziurtagiria jaulkitzeko eskaeran adierazitako eskatzailearen posta-helbidera bidaltzea, PINa eta PINa desblokeatzeko kodea (PUKa) eta telefono bidez identifikatzeko pasahitza nahiz ziurtagiria erabiltzeko baldintzak zein diren adierazten dituen orria.



3.4 Ziurtagiriak etetea

Harpidedunak edozein unetan eskatu ahal izango du ziurtagiria eteteko. Hori beti egin beharko du ziurtagiria galdu edo lapurtuz gero. Horretarako, 902 542 542 telefono-zenbakira deitu beharko du, eta bertan honako hauek eman beharko ditu identifikatzeko:

- Telefono bidez identifikatzeko pasahitza edo, bestela, IZENPEk eskatutako datuak, horrela eskatzailea behar bezala identifikatzeko.
- Eskatzailearen identitatea egiaztatzeke behar diren identifikazio-elementuak (ikus 3.1.1 atala, *Eskatzailearen identitatea egiaztatzea*).
- Jaiotze-data.

3.4.1. Ziurtagiria etetea eskatzen duen entitatea

Ziurtagiria honako hauek eten dezakete:

- Ziurtagiria jaulki zaion harpidedunak.
- Erregistro-entitateak

3.4.2. Etenaren gehienezko epea

Etenaren gehienezko epea hamabost egun naturalekoa izango da, ziurtagiriaren harpidedunak eskatzen duenetik kontatzen hasita.

Epe horretan harpidedunak ziurtagiria berraktibatzeke eskatu beharko du, horretarako aurreikusitako baldintzetan.

Epe hori pasatu eta harpidedunak ziurtagiria berraktibatzeke eskatu ez badu, ziurtagiria ezeztatu egingo da.

3.5 Ziurtagiriak ezeztatzea

Ziurtagiria ezeztatzeke eskatu nahi duenak erregistro-entitatearen bulegoetakoren batera hurbildu beharko du. Bertan bere burua identifikatu beharko du, identitatea egiaztatzen dion dokumentazioa erabiliz (ikus 3.1.1 atala), [ziurtagiria ezeztatzeke eskaera](#) bete eta, beharrezkoa balitz, ezeztatzea arrazoitzen duen dokumentazioa entregatu beharko du.

Ziurtagiria ezeztatzeke arrazoiak eta ezeztatzea eska dezaketenek bete beharreke baldintzak Ziurtagiri Praktiken Deklarazioan ikus daitezke.



3.6 Ziurtagiriak berraktibatzea

Ziurtagiriaren harpidedunak hamabost egun naturaleko epea izango du ziurtagiriak berraktibatzeke eskatzeko, ziurtagiria eteteko eskatzen duenetik kontatzen hasita. Epe hori igaro ondoren, ziurtagiria ezeztatu egin dela ulertuko da.

Harpidedunak erregistro-entitate batera hurbildu beharko du ziurtagiria berraktibatzeke. Bertan bere burua identifikatu beharko du, identitatea egiaztatzeko dokumentazioaren bitartez (ikus 3.1.1 atala) eta [ziurtagiria berraktibatzeke eskaera](#) entregatu beharko du, behar bezala beteta.

3.7 Ziurtagiriak berritzea

Ziurtagiria berritzeko (ezeztatu egin delako edo iraungi egin delako), ziurtagiri berria eskatu beharko du harpidedunak, ziurtagiriak jaulkitzeko finkatutako prozedurari jarraiki.



4. Ziurtagirietako profilak eta ezeztatutako ziurtagirien zerrenda

Izenperen zerbitzuak hasi zirenetik, eta DPC 2.0 bertsioa aldatu zen arte, ziurtagiriak honako profil honekin jaulki ziren, OIda 1.3.6.1.4.1.14777.2.1 zela.

Eremua	Edukia
1. X.509v1 Field	
1.1. Version	v3
1.2. Serial Number	CA jaulkitzaileak automatikoki emandakoa
1.3. Signature Algorithm	SHA-1 RSA sinadurarekin
1.4. Signature Value	Bit-kate gisa kodeatutako sinadura
1.5. Issuer Distinguished Name	
1.5.1. Country (C)	Espainia
1.5.2. Locality	Mediterraneoaren hiribidea, 3 – 01010, Vitoria-Gasteiz
1.5.3. Organization (O)	IZENPE S.A.-IFK A-01337260 – RMerc. Vitoria-Gasteiz T1055 F62 S8
1.5.4. Organizational Unit (OU)	NZZ Ziurtagiri Publikoa - Certificado publico SCI
1.5.5. Common Name (CN)	Herritar eta erakundeen CA - CA de ciudadanos y entidades
1.5.6. EmailAddress	info@izenpe.com
1.6. Validity	
1.6.1. Not Before	Ziurtagiriaren iraunaldiaren hasiera-data
1.6.2. Not After	Ziurtagiriaren iraunaldiaren amaiera-data
1.7. Subject	
1.7.1. Organizational Unit (OU)	Condiciones de uso en www.izenpe.com nola erabili jakiteko
1.7.2. Organizational Unit (OU)	Certificado reconocido de ciudadano Herritar ziurtagiri onartua
1.7.3. dnQualifier	Harpidedunaren IFZ, AIZ (*) (*) formatua : -NAN nnnnnnnnL edo -AIZ XnnnnnnnnL
1.7.4. Common Name (CN)	Harpidedunaren izen-abizenak, NANean azaltzen diren moduan
1.8. Subject Public Key Info	1024-Bit kode publiko kodeatua RFC2459 & PKCS#1-i jarraiki
2. X.509v3 Extensions	
2.1. Authority Key Identifier	
2.1.1. Key Identifier	Jaulkitzailearen kode publikoaren identifikatzailea
2.1.2. AuthorityCertIssuer	key Identifier eremuan identifikatutako kodea dagokion AC-ren izena
2.1.3. AuthorityCertSerialNumber	AC-ren ziurtagiriaren serie-zenbakia.
2.2. Subject Key Identifier	
2.2.1. Key Identifier	Harpidedunaren kode publikoaren identifikatzailea
2.3. Key Usage	



Eremua	Edukia
2.3.1. Digital Signature	Hautatua: "1"
2.3.2. Non Repudiation	Ez hautatua: "0"
2.3.3. Key Encipherment	Hautatua: "1"
2.3.4. Data Encipherment	Ez hautatua: "0"
2.3.5. Key Agreement	Ez hautatua: "0"
2.3.6. Key Certificate Signature	Ez hautatua: "0"
2.3.7. CRL Signature	Ez hautatua: "0"
2.4. Qualified Certificate Statements	
2.4.1. qCStatement OID	0.4.0.1862.1
2.5. Certificate Policies	
2.5.1. Policy Identifier	1.3.6.1.4.1.14777.2.1
2.5.2. Policy Qualifier ID	
2.5.2.1. CPS Pointer	http://www.izenpe.com/rpaciudadano
2.5.2.2. User Notice	Bermeen mugak ezagutzeko www.izenpe.com Ziurtagirian konfiantza izan aurretik kontratua irakurri Limitaciones de garantías en www.izenpe.com Consulte el contrato antes de confiar en el certificado
2.6. Subject Alternate Names	
2.7. Issuer Alternative Name	
2.7.1. dNSName	www.izenpe.com
2.8. Extended Key Usage	
1.1.1. clientAuth	1.3.6.1.5.5.7.3.2
2.9. cRLDistributionPoint	
2.9.1. distributionPoint	http://crl.izenpe.com/cgi-bin/crl
2.10. NetscapeCertType	SSL client
2.11. Subject Directory Attributes	
2.11.1. Date of Birth	12-06-2000
2.12. Authority Information Access	
2.12.1. Access Description	
2.12.1.1. Access Method	1.3.6.1.5.5.7.1.48.1
2.12.1.2. accessLocation	http://ocsp.izenpe.com:8094



Herritarraren ziurtagiriaren profila DPC 2.0

Honako profil honekin jaulkitzen dira orain herritarraren ziurtagiriak, OID 1.3.6.1.4.1.14777.2.6 zenbakidunak.

Erabilera: sinadura, ssl

Eremua	Eremua
2. X.509v1 Field	
2.1. Versión	V3
2.2. Serial Number	CA jaulkitzaileak automatikoki emandakoa
2.3. Signature Algorithm	SHA-1 RSA sinadurarekin
2.4. Signature Value	Bit-kate gisa kodeatutako sinadura
2.5. Issuer Distinguished Name	
2.5.1. Country (C)	Espainia
2.5.2. Locality	Mediterraneoaren hiribidea, 3 - 01010, Vitoria-Gasteiz
2.5.3. Organization (O)	IZENPE S.A.-IFK A-01337260 – RMerc. Vitoria-Gasteiz T1055 F62 S8
2.5.4. Organizational Unit (OU)	NZZ Ziurtagiri Publikoa - Certificado publico SCI
2.5.5. Common Name (CN)	Herritar eta erakundeen CA - CA de ciudadanos y entidades
2.5.6. EmailAddress	info@izenpe.com
2.6. Validity	3 urte
2.6.1. Not Before	adib., "00:00:01 01 September 1999"
2.6.2. Not After	adib., "23:59:59 31 August 2003"
2.7. Subject	
2.7.1. CountryName	ES
2.7.2. Organizational Unit (OU)	Ziurtagiri onartua - Certificado reconocido
2.7.3. Organizational Unit (OU)	Herritar ziurtagiria - Certificado de ciudadano
2.7.4. Organizational Unit (OU)	Condiciones de uso en www.izenpe.com nola erabili jakiteko
2.7.5. dnQualifier	Harpidedunaren IFZ, AIZ (*) + erabiltzailearen OTI (hautazkoa) (*) Formatua : -NAN nnnnnnnL edo -AIZ XnnnnnnnL -OIT nnnnnnn
2.7.6. Common Name (CN)	Harpidedunaren izen-abizenak, NANean agertzen diren moduan
2.7.7. givenName	Harpidedunaren izena, NANean agertzen den moduan
2.7.8. surname	Harpidedunaren abizenak, NANean agertzen diren moduan
2.7.9. serialNumber	Harpidedunaren IFZ edo AIZ
2.8. Subject Public Key Info	1024-Bit kode publiko kodeatua, RFC2459 & PKCS#1-i jarraiki
3. X.509v3 Extensions	
3.1. Authority Key Identifier	
3.1.1. Key Identifier	Jaulkitzailearen kode publikoaren identifikatzailea
3.1.2. AuthorityCertIssuer	keyIdentifier eremuan identifikatutako kodea dagokion AC-ren izena
3.1.3. AuthorityCertSerialNumber	AC ziurtagiriaren serie zenbakia
3.2. Subject Key Identifier	



Eremua	Eremua
3.2.1. Key Identifier	Harpidedunaren kode publikoaren identifikatzailea
3.3. Key Usage	
3.3.1. Digital Signature	Hautatua: "1"
3.3.2. Non Repudiation	Ez hautatua: "0"
3.3.3. Key Encipherment	Hautatua: "1"
3.3.4. Data Encipherment	Ez hautatua: "0"
3.3.5. Key Agreement	Ez hautatua: "0"
3.3.6. Key Certificate Signature	Ez hautatua: "0"
3.3.7. CRL Signature	Ez hautatua: "0"
3.4. Qualified Certificate Statements	
3.4.1. qCStatement OID	0.4.0.1862.1
3.5. Certificate Policies	
3.5.1. Policy Identifier	1.3.6.1.4.1.14777.2.6
3.5.2. Policy Qualifier ID	
3.5.2.1. CPS Pointer	http://www.izenpe.com/rpaciudadano
3.5.2.2. User Notice	Bermeen mugak ezagutzeko www.izenpe.com Ziurtagirian konfiantza izan aurretik kontratua irakurri Limitaciones de garantias en www.izenpe.com Consulte el contrato antes de confiar en el certificado
3.6. Subject Alternate Names	
3.6.1. rfc822Name	
3.7. Issuer Alternative Name	
3.7.1. dNSName	http://www.izenpe.com
3.8. Extended Key Usage	
3.8.1. clientAuth	1.3.6.1.5.5.7.3.2
3.9. cRLDistributionPoint	
3.9.1. distributionPoint	http://crl.izenpe.com/cgi-bin/crl
3.10. NetscapeCertType	SSL client
3.11. Subject Directory Attributes	
3.11.1. Date of Birth	12-06-2000
3.12. Authority Information Access	
3.12.1. Access Description	
3.12.1.1. Access Method	1.3.6.1.5.5.7.1.48.1
3.12.1.2. accessLocation	http://ocsp.izenpe.com:8094